

EGIAZKO ZORIONA EZ DA DIRUZ EROSTEN



ERABILI ZURE DENBORA LIBREA MEREZI DUENERAKO
Zuk zeuk irabaziko duzu, eta planetak eta guztiok irabaziko dugu.



OINARRI-DOKUMENTUA

SARRERA

Azken urteotan gure ikastetxeetan gauzatutako garapenerako hezkuntzako kanpainen izendatzailerikomuna dute: kontsumo arduratsua, hainbat ikuspegitatik begiratuta (elikadura, ingurumena, moda, etab.). Gure kontsumo-ereduen erritmo azkarraren ondorioz, zehazki, herrialde aberatsetako gizarteetako kontsumoaren ondorioz, milioika pertsonaren eskubideak urratzen direla ikusi dugu. Herrien garapen-aukeretan eragina du kontsumismoak, bai eta lurrraren iraunkortasunean ere, herrialde pobretuetan, bereziki.

Ikasturte honetan, **propositiboak izan nahi dugu**, eta **bizimodu apala** egiteko gonbita egin nahi diegu gure hezkuntza-elkarteei, kontsumoaren inguruan mugatzen ez diren balioez eta esperientziez gozatzeko; horrela, ingurumena ez dugu kaltetuko eta, etorkizun hurbilean, munduko beste pertsonen eta gure bizi-baldintzei ez diegu eraso egingo.

Gure denbora adrenalinaz betetako entretenimendu sofistikatuekin betetzeko ohitura hartu dugu, eta estresa eta hondakinak sortzen dituzte horrelakoek. Gure aisialdiaz eta bizitzako plazer arruntez gozatzeko modua aldatu dugu, okerrera aldatu ere..., eta haurrei eta gazteei helarazi diegu mezu hori, beren ekintza eta aldarrikapenekin etorkizuna aldatzeko gaitasun handien dutenei, hain zuzen.

Ikasturte honetan, gogora ekarri nahi dugu gure denbora libreza bizitzeko eta hartaz gozatzeko beste modu batzuk badirela, **errespetutik, solidaritatetik, elkarbizitzatik, soiltasunetik eta naturaren zaintzatik** datozenak.

Planetako pertsona guztiek ez dute aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzeko aukera, giza eskubide bat den arren. Ez dugu ahaztu behar gure aisialdiak eta denbora libreak herrialde pobreetan bizi diren beste pertsona batzuegan dituen inplikazioak: gure bizimodu kontsumistak beste pertsona batzuen eskubideak urratzen ditu, eta baliabideak agortzen ari dira; horrek guztiak eragin negatiboa du planetako hainbat tokitan. Beraz, gizarte eta lurralde horiek erabat aldatzen ari gara, askotan oso azalekoak diren gure premiak asetzeko.

Oinarri-dokumentu honetan, ikasturte honetako kanpainako funtsezko ideia garatu dugu, eta hurrengana zuzendu dugu begirada bereziki.

Zer da, gure ustez, denbora librea?

Jaume Trilla Pedagogiako katedradunak gure denboraren sailkapen bat egin du, askotan denbora motak nahasten baititugu. Hala, honako denbora hauek bereizi behar ditugu:

- **Erabili ezin dugun denbora:** hainbat betebeharrarako erabiltzen duguna, hala nola lanerako, eskolara joateko, etxean laguntzeko, etab.
- **Erabilgarri dugun denbora:** hautatu ditugun jarduerak egiteko erabiltzen dugun denbora: eskolaz kanpokoak, hizkuntza-eskolak edo musika-eskolak, kirol-jarduerak, etab.

Erabilgarri dugun denboraren barnean, **denbora librea** izango genuke, hau da, gure betebeharrak bete ondoren eta gure buruari ezarritako zereginak egin ondoren erabilgarri gelditzen zaigun denbora. Oro har, pertsonok atsedean hartzeko eta plazera edo entretenimendua lortzeko jarduerak egiteko erabiltzen dugu gure denbora librea, hau da, gure betebeharrak betetzen ari garenean (lana, ikasketak, etab.) egin ezin ditugun gauzak egiteko. Honela definitu zuen Weber soziologoak: *norbanako baten bizitzako aldien multzoa, non pertsona hori kanpoko zehaztapenetatik aske sentitzen den eta aldi edo une horiek pertsonalki gauzatzeko erabiltzeko aukera duen; modu horretan, norbanakoak bizimodu gizatiarra egiteko aukera du.* Trillak bereizketa hau egiten du: denbora libre antzua (denbora-pasa egotea) eta aisialdia; azken horrek jarduerak bat hartzen du barnean, eta jarduera horrek balio bat du, interesgarria da pertsonarentzat eta ekintzarako motibazio bat izatea inplikatu ohi du; beraz, denbora libre erabiltzeko modu positiboa litzateke, definizioaren arabera. Hala ere, aisialdiari buruzko definizio erabiliena Dumazedier-ena (1968) da: *eginbehar profesionalak, familia-eginbeharrak eta eginbehar sozialak bete ondoren, norbanakoak borondatez egiten dituen zereginen multzoa, atsedean hartzeko, dibertitzeko, informazioa edo formazioa eskuzabalki garatzeko edo bere elkarteko gizarte-bizitzan borondatez parte hartzeko.*

Denbora libre (edo aisialdiak, Trillaren definizioaren arabera) **nolakotasunak eta gaitasun pertsonalak garatzeko** aukera ematen dio berori erabiltzen duen pertsonari. Balio horien faltak aisialdia alferkeria bihurtuko luke.

Funtsezko faktorea da aisialdia gizarte baten garapen sozioekonomikorako: bizi-kalitatearen maila adierazten du, eta pertsonen eguneroko bizitza errazten duten lanpostuak eta zerbitzuak sortzen ditu. **Baina, bestalde, garapen pertsonalerako ere funtsezkoa da,** erlaxatzeko, gure osasuna hobetzeko jarduera fisikoak egiteko edo beste modu batean ezagutu ezingo genituzkeen gaitasun artistikoak garatzeko aukera ematen digulako; gainera, soziabilitate-maila onargarria lortzeko bidea ere ematen digu.

Puntu honetan, interesgarria da denbora libre **genero-rolen** arabera nola banatzen den kontuan izatea. Kultura gehienetan, emakumeak arduratzen dira etxea nahiz pertsonak zaintzeko zeregin beharrezkoak eta aitortu gabekoak egiteaz; horren ondorioz, zeregin horiek egiteko erabiltzen dute beren denboraren zati handi bat. Herrialde pobreetan, genero-arrakala horrek neskatoei eragiten die baita ere, eta ez dute aukerarik izaten beren denbora libre jolasteko eta beste pertsona batzuekin harremanak ezartzeko erabiltzeko, jarduera horiek beren garapenerako lagungarriak diren arren. Askotan, etxeko zereginetan aritu behar izateak, lagunekin jolas egiteko denbora libre kentzeaz gain, oinarrizko beste eskubide batzuk ere kentzen dizkie, eskolara joateko eskubidea, adibidez.

Zer dio nazioarteko legediak?

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean¹, 24. artikuluan, zehazki, honako hau irakur dezakegu: pertsona orori dagozkio atsedenerako eskubidea, aisiarakoa, [...]. Bestalde, **Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak**² 7. artikuluan, atsedenerako eta denbora libreaz gozatzeko eskubidea aipatzen du.

Hautzaroari ere badagozkio eskubide horiek, eta, **Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean**³ (1989) ere aitortzen da eskubide hori: *haurrak atsedenerako eta aisialdirako, jolas eta ekintza kultural eta artistikoetan parte hartzeko eskubidea du.*

Gure denbora librea, benetan librea ote da?

XX. mendean gertatutako industrializazioak egindako ekarpen nagusietako bat gure aisialdiaren eta kontsumoaren arteko lotura da: teknologiari esker, pertsonak lanarekiko zuten lotura arindu egin zen, eta, horren eta lan-baldintza hobekitzeko eskatzeak aldarrikapenen ondorioz, lanaldiak murriztu egin ziren eta jendea denbora libre gehiago izaten hasi zen. Kontsumoa, gehienetan, ekintza soziala da: sozializatzeko aukera ematen digu. Gauza bera gertatzen da denbora librearekin, gure inguruko pertsonekin edo interes berberak dituzten beste pertsona batzuekin jarduerak garatzeko erabiltzen baitugu gehienetan.

Gaur egun, denbora librea da balio preziatuena industrializazio-maila handia duten herrialdeetako gizarteetan. Hala ere, une honetan, gure denbora librea betetzeko hainbeste entretenimendu eta errutinekin berori ase dugula esan daiteke, eta, askotan, denbora libreko jarduerak ere betebeharrak bihurtzen dira. Baina gure aisialdia betetzeko egiten ditugun jarduerak horiek ez dira doakoak izaten, eta, beraz, gure denbora librea erosi egiten dugula esan daiteke, hau da, askotan ezarri egiten zaigun zoriona erosten dugu.

Azken puntu horri dagokionez, PROCLADE, PROYDE eta SED erakundeetako lanketa eta Gizarte Intzidentzia Sailak Bidezko Kontsumoari buruz idatzitako dokumentuan⁴ jada bizitzaren merkantilizazioa aipatzen zen: *kontsumismoak giza balioa kentzen dio edozein esperientziari: naturaz gozatu ordez natura kontsumitzen dugu, arteaz gozatu ordez erosi egiten dugu. Beraz, gauza guztiak merkaturatu diren gizarteak sortu dugu, dena saleros daiteke.*

Kontsumitzeko erabiltzen dugu gure denbora librearen zati handi bat: erosketak egiteko, telebista ikusteko, bideo-jokoetan jokatzeko, zinemara joateko ilarak egiteko edo edozer gauza erosteko. Kasu askotan, ahaztu egiten dugu **denbora librearen funtsezko printzipioa, hainbat teoriaren arabera, plazera dela, eta xedea, norbanakoaren osotasuna gizarte industriaren erasoetatik defendatzea**. Kontsumo mota horrek gizarteko eragin-trukea sustatzen du, eta hori garrantzitsua iruditzen zaigu, baina ezin dugu gure aisialdia kontsumo hutsera mugatu.

Denbora librea gure betebeharretatik askatzeko elementua dela ulertu behar dugu, norbanakoen gaitasun sortzaileen aktibatzailea eta asperduraren kontrako antidotoa; beste pertsona batzuekin eta, oro har, naturarekin harremanak ezartzeko gunea da. Izan ere, askotan gertatzen da "denbora libreko" jarduerak gehiegi ditugula eta aseta gaudela, eta, horren ondorioz, gero eta gehiago aspertzen gara, gure borondatez hautatu ditugun jarduerak ere estresa edo frustrazioa sortzen digutelako.

Horrez gain, "denbora librearen esklabotza" ere existitzen da, lan-eskubideetan aurrera egin arren eta industrializazioak erraztasun asko ekarri arren, gero eta gehiago lan egiten baitugu, aisialdi

1 http://www.un.org/es/documents/udhr/index_print.shtml

2 <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/CESCR.aspx>

3 <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/CRC.aspx>

4 <http://comerciojusto.org/publicacion/informe-consumo-justo/>

kontsumista hori eskuratzeko: ordu gehiago lan egin behar dugu, diru gehiago irabazteko eta gure aisialdiari ekonomikoki erantzun ahal izateko. Gainera, teknologiaren erabilera masiboak edozein jarduera garatzea errazten digu, baita denbora librean egiten ditugunak ere, eta, horrela, gure aisialdia modu guztiz askean gauzatzeko gure gaitasun sortzailea mugatzen ari gara nolabait.

Zer zerikusi du horrek garapenarekin?

Aisialdi kontsumista horrek guztiak pozbidea ekar dakiguke (behin-behinekoa edo azalekoa bada ere) herrialde aberatsetan, baina ondorio jasanezinak eta bidegabeak ditu herrialde pobre askotan: 2008an, 20 milioi tonatik 50 milioi tonara arteko hondakin elektronikoko sortu ziren; horietako asko gure aisialdiko tresnen hondakinak dira (ordenagailuak, bideokontsolak, telefonoak, etab.). EBk GGI baxua edo oso baxua duten herrialdeetara zuzendu zuen hondakin toxikoen % 47 (iturria: NBIP). Gure hemengo aisialdi-eredurako produktuak ekoizteko behar diren baliabideetako asko lan-eskubideak edo haurren eskubideak errespetatzen ez dituzten herrialdeetatik iristen dira; herrialde horietan, basoak eta meategiak suntsitzen ari dira, eta epe ertain eta luzean hondamendi natural eta gaixotasun gehiago eta pobrezia handiagoa ekarriko ditu horrek. Gainera, ez dugu ahaztu behar zerbitzu ukiezinen kontsumoarekin lotutako aisialdia, turismoa, adibidez: hegazkinen igorpenek ondorio kaltegarriak sortzen dituzte ingurumenean, eta ondorio larriak ditu horrek hondamendien aurrean erantzuteko ahalmen txikiagoa duten herrialdeetan. Gainera, herrialde pobreetako proiektu turistiko handien ondorioz, herrialde horietako biztanleek bizitokia aldatu behar izan dute, eta baliabide naturalak erabiltzen ari dira, jatorrizko biztanleen kalterako.

Ulertu behar dugu Garapenerako GKEok garapenari egin diezaiokegun ekarpenik eraginkorrena beste gizarte batzuen desegituratzea aurreikustea dela, kasu honetan herrialde pobreena. Horregatik, garrantzitsua da **etikatik heztea eta aberastasunaren** (materiala, ez-materiala eta natura bera) **banaketa bidezkoagoa** beharrezkoa dela ulertaraztea, hala, munduko pertsona guztiek, baita haurrek ere, aisialdiaz gozatzeko aukera izan dezaten, horretarako dirua gastatu beharrik izan gabe. Rob Lynch soziologo australiarrek, Aisialdiaren Mundu Kongresuan (Bilbo, 2000) egindako hitzaldian, honako hau adierazi zuen: *Jendea etikaren bidetik hez daiteke, aberastasunaren banaketa etikoagoa egiteko eta pertsonen eurentzat aberasgarriagoak izango diren gauzak egiteko baliatzeko aisialdia, dirua xahutu ordez*⁵.

Kontsumismoan oinarritutako denbora libreak desorekak sortzen ditu, eta **gizarte-arrakala** area-gotzen du denbora libre eta aisialdia erabiltzeko aukera dutenen eta ez dutenen artean. Arrakala hori handitzen ari da mendebaldeko gizarteen barnean nahiz aisialdia eta denbora libre erabiltzeko aukera txikiagoa duten herrialdeetan. Kontsumo-gizarte honetan, jende askok onartu egin du dirua beste gauza guztien gainetik dagoela, eta natura, izaki bizidunak eta pertsonak berak erabili egiten dira: gauza guztiak diruz erosten dira, baita pertsonak ere. Zenbait kasutan, diruaren nagusikeriaren ondorioz, hainbat pertsonak etekina ateratzen dute beste pertsona batzuen premietatik; adibidez, pertsona-trafikoa gertatzen da. Esate baterako, herrialde pobreetako turismo-inguruetan izugarri handitu da sexu-turismoa, eta herrialde horietako neska gazteek jasaten dute, nagusiki; hala ere, turismo mota horrek ez die emakumeei eta adingabeei soilik eragiten.

Denbora libre **aisialdi positibo** gisa ikusi behar dugu, bai eta **pertsonen (edozein jatorritakoak eta bizi diren tokia edozein izanik ere) erabateko garapena eragozten duten mehatxuen aurreko babes-faktore gisa ere**. Herrialde pobreetan –eta baita gure herrialdeetan ere–, haur eta gazte askok ez dute aukerarik denbora libreaz gozatzeko, eta, horrez gain, aukera faltaren ondorioz eta gizarte- eta familia-ehuna ahula denez, askotan, euren etorkizunerako arriskutsuak edo euren buruentzat iraingarriak izan daitezkeen jarduerak egin behar izaten dituzte (adibidez, eskale ibili behar izatea edo sexu-esplotaziora zuzendutako pertsona-trafikoan aritzea). Gainera,

5 http://elpais.com/diario/2000/07/07/paisvasco/962998817_850215.html

kasu askotan, haurren lan-indarra erabiltzen da lehengaiak erauzteko edo gure denbora librean erabiltzen ditugun produktuak ekoizteko. Haur batzuk lan egitera behartuta daudenez, haur horiek ez dute aukerarik hezkuntza jasotzeko, edo zailtasun handiak izaten dituzte, eta, horren ondorioz, ez dute aukerarik pobrezia-egoeratik eta gizarte-bazterketatik irtetea bermatuko dien etorkizun oparagoa izateko.

Gure herrialdean eta gainerako herrialde aberatsetan ere gertatzen da haurren babesgabetasun-egoera hori, baina beste modu batean: aisialdiaren eta denbora librearen eskaintza izugarria eta oso erasokorra denez, haurrek eta gazteek kontsumitzeko ohiturak barnatzen dituzte, horren aurrean **batare gogoetarik egin gabe**, gizarte-inguruak eta publizitate erasokorrak bultzatuta. Gainera, askotan, **bakar-bakarrik gozaten dugu gure denbora libreaz**. Frantzisko Aita Santuak, **Laudato Si' Entziklikan**, gaur egungo kontsumo-ereduek pertsonak gizartean jasaten duten bakartzeari nola eragiten dioten aztertzen du: [...] *produktu horien eskaintza izugarriarekin batera, nahigabe malenkoniatsu sakona garatzen da pertsonen arteko harremanean, edo bakartze kaltegarria*. Horren ondorioz, murriztu egiten dira emozionalki eta intelektualki hazteko aukerak, eta, kasu askotan, ohi-tura arriskutsuak sortzen dira norbanakoaren garapenerako eta garapen sozialerako, eta ez dago ia aukerarik besteen alde zerbait egiteko, behar gehien dituztenen alde, bereziki.

Publizitateak, lehen esandakoaren ildotik, funtzio garrantzitsua betetzen du aisialdi kontsumitzailearen oinarritutako kultura horretan: edonon aurki dezakegu kontsumitzeko gonbita egiten digun publizitatea, eta, horren truk, estatus jakin bat lortuko dugula, gizarte-talde bateko kide izango garela edo saldu nahi digutena erosten ez badugu gizartean baztertuta geratuko garela adierazten zaigu. Publizitate mota horrek ez lituzke etikaren mugak gainditu beharko, eta herritarrek bere kontrolatu beharko lituzkete muga horiek, etikoak ez diren ohitura irregularrak salatuz. Hezkuntza da horretarako gakoa, eta haurtzaroa da protagonista nagusietako bat: **balioetan oinarritutako hezkuntza kritikoa sustatzen badugu, eta, horrekin batera, kontsumismoan oinarritzen ez diren beste bizimodu bidezkoago eta apalago batzuk sustatzen baditugu, kontsumo-ereduak aldatzea posible izango da, beharrezkoa baita hori etorkizuneko belaunaldiak etorkizun iraunkorra bermatzeko maila globalean**. *Posible da gutxi behar izan eta asko bizitzea, bereziki, pozibidea beste plazer batzuk garatzeko gauza izatean eta senideekin topo egitean aurkitzen denean, eta zerbitzuan, karismak partekatzean, musikan eta artean, eta naturarekiko harremanean nahiz otoitzean aurkitzen denean pozibidea*. (Laudato Si', 223).

Ez da komeni muturreko joeretara jotzea; izan ere, kontsumoak enplegua sortzen du, eta, beraz, hazkuntza ekonomikoa, eta gizarte baten bizi-baldintzak hobetzen laguntzen du horrek.

Kontsumoari lotutako aisialdiak pertsona guztiei horretarako aukera izatea dakarkie, baina, azken batean, norbanakoen edo familien maila ekonomikoaren araberakoa da hori. Hala ere, aurreko urteetan landutako garapenerako hezkuntzako kanpainetan ikusi izan dugunez, gure kontsumismoak oso ondorio kaltegarriak ditu planetan eta pertsonengan, eta eskubideak urratzen ditu herrialde pobreetan, bai eta, gero eta gehiago, gure etxean bertan ere: baliabide naturalen ustiapenak (teknologia ekoizteko mineralak, zura, ura, etab.) edo gaur egungo kontsumo-erritmoen ondoriozko gure aztarna ekologikoak lehortea, pertsonen tokialdatzeak, oinarritzko baliabideak eskuratzeko zailtasunak, etab. sortzen ditu.

Imajinatu halakorik gabeko egun bat...

Egun libre bat dugunean, atsedean hartzeko jarduera desberdin batean pentsatzen dugu: irteera antolatuta bat egitea, zinemara edo antzerkia ikustera joatea, erosketak egitea edo gimnasiora joatea, edo etxean gelditzea telebista ikusten edo bideo-jokoekin edo sakelakoarekin jolasten. Apur bat aztertzen badugu, gure denbora librean egiten ditugun jarduera gehienak kontsumo-ondasun batekin edo gehiagorekin lotuta daude.

Jende askorentzat, zaila da imajinatzea egun bat Internetik gabe, mugikorrik gabe, autorik edo garraio publikorik gabe, berogailurik gabe neguan, mota guztietako elikagairik gabe urteko edozein sasoiatan... Munduko hainbat tokitan (herrialdeen gutxiengoan dugu gehiengo batek kontsumorako aukera), ahalegin handia egin behar dugu ondasun horiek gabeko egun bat imajinatzeko; hala ere, beste herrialde eta eskualde batzuetan, ondasun horietako edozein erabiltzeko aukera izango duten egun batekin egiten dute amets, horretarako beren etorkizuna hipotekatu beharrik izan gabe.

Herrialde aberatsetan, pertsona askok kontsumo-ondasun jakin batzuk lortzeko aukera izan nahi dute. Horretarako, komeni baino lan gehiago egiten dute, gaur lortu ezin dutena lortu ahal izateko etorkizunean. Hala ere, munduko milioika haurrek ez dute denbora libreaz gozatzeko aukerarik, etxekoei laguntzeko lan egin behar izaten dutelako. Kasurik onenean, lana eta eskola txandakatu ditzakete. Munduko haur askok lantegietan edo meategietan egiten dute lan, esklabotasun-baldintzatan ia, herrialde aberatsetan bizi garenoi gure aisialdiaz gozatzeko aukera emango diguten kontsumo-ondasunak eskuratzeko.

Nazioarteko erakundeek (NBEk, nagusiki) eta sen onak zera adierazten digute: ez da bidezkoa gure aisialdia planetako beste aldeko pertsonen askatasunen eta eskubideen bizkar bititza, ez eta etikoa, solidarioa eta iraunkorra ere.

Irtenbideak bilatzen ditugu

Poliki-poliki, gizartea jabetzen ari da gure kontsumo-ereduan aldaketak egiteko beharraz. Aldaketa horixe planteatzen du **Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) arteko 12.ak**⁶: "kontsumo- eta ekoizpen-modalitate iraunkorrak bermatzea."

Kontsumismo neurrigabearen aurrean bilatu beharreko irtenbideek ezaugarri bateratu batzuk izan behar dituzte: gizarte-kohesioa sortzea, ondasunak partekatzeo aukera izatea eta pertsonen arteko loturak ezartzea (edo sendotzea). **Hurrengo hamarkadei begira, kontsumo-eredu soil eta apalak sustatu behar ditugu**, planetaren iraunkortasuna helburu izanik beti. Planeta zaintzeko, funtsezkoa da **modu apalagoan bizitzea** eta gaur egun munduan bizi diren gainerako pertsonetikiko nahiz etorkizunean biziko direnekiko dugun konpromisoa sendotzea.

Zaila da gaur egun nagusi diren kontsumo-ereduak alde batera utzi eta **soiltasunez⁷ eta apaltasunez** bizitzea; horretarako, beharrezkoak dira **herritarren eta politikarien borondatea eta gizartearen mobilizazioa**. Baina posible da: **ekintza txikien** bitartez, aldaketa handiak egin daitezke: modu egokian birziklatuz, argiak edo tresna elektronikoak itzaliz, bigarren eskuko produktuak erosiz, zerbitzuak partekatuz, elikagaiak edo ura alferrik ez xahutuz, garraio publikoa erabiliz edo oinez edo txirringaz joanez, gure erosketen premiaz gogoeta eginez, etab. Aldaketa gerta dadin, munduan gero eta pertsona gehiagok gauzatu behar ditugu ekintza txiki horiek, bereziki herrialde aberatsetan bizi garenok, geuk kontsumitzen baititugu ondasun gehien.

Hauxe dio Frantzisko Aita Santuak: *lagun hurkoaren zerbitzura eskainitako bizimodu xumea da guztion ongia sustatzeko modurik onena*. Apaltasuna ezaugarri izango dituzten jarduerak gartzeko, beharrezkoa da gogoeta pertsonala egitea kontsumitzen ditugun ondasunen premiari buruz, bai eta gure denbora librearen erabilerari buruz nahiz munduko beste toki batzuetako pertsonen horiez gozatzeko aukerarik ez izateari buruz ere. Badakigu, gaur egun, zenbait ele-

6 <http://www.un.org/sustainabledevelopment/es/sustainable-consumption-production/>

7 Frantzisko Aita Santuak, Herri Mugimenduen Munduko III. Topaketan, honako hau adierazi zuen: *Apaltasunaz hitz egiten dudanean zer esan nahi duan argitu nahiko nuke. Hitz horrek zalantzak zor ditzake. Apaltasun moral, bizimodu apala, bizitza eta familia aurrera eramateko modu apala. Apaltasun moral eta gizatiarra. Esparru zientifikoagoan, zientifiko eta ekonomikoan, nahi izanez gero, edo merkatuaren zientzietan, apaltasuna doitzearen sinonimo baita. Eta nik ez dut hori adierazi nahi. Ez naiz horretaz ari.*

mentu eta ondasun beharrezkoak direla gure bizitzarako eta gure aisialdiko eta denbora libreko uneetarako. **Apaltasuna bizi-filosofia bat da, dirua gure aisialdiaren erdigunetik kendu nahi duena eta, horren orde, pertsonak eta natura jarri nahi dituen erdigunean.**

Batzuetan, punta-puntako telefonoa edo denboraldi horretan modan dagoen jantzia ez badugu, baztertuta edo lotsatuta sentitzen gara. Badirudi munduak kontsumismoaren inguruan egiten duela bira, aberastasuna metatzeko nahiaren inguruan, eta ez dugu pentsatzen guk sortutako moden edo premien ondorioz nor kaltetzen den. Gure gizarteak, oro har, ez ditu ezagutzen gure modak ekoizteko beharrezko lehengaien eta eskulanaren iturri diren munduko beste toki batzuetako bizimoduak (Frantzisko Aita Santuak argiago adierazten du, eta "axolagabekeriaren kultura" deitzen dio horri). Horregatik, **beste errealitate batzuk ezagutarazteko ahalegin bat** egin behar da; izan ere, beste errealitate horietan, baliabide naturalen jabe izan arren, ezin dituzte lehengaiak eskuratu, eta munduko alde honetan xahutzen ditugun lehengaiak eskuratzeko ere zailtasunak izaten dituzte.

Aurreko ikasturteetako garapenerako hezkuntzako kanpainetan, kontsumismoaren ondorioz urratzen diren eskubideekin lotuta munduko hainbat lekutan bizi dituzten egoerak erakusten saiatu gara. **Oraingo honetan, aisialdiarekin lotutako irtenbideak proposatu nahi ditugu. Gure sormena landu nahi dugu, aisialdia erabiltzeko gure moduak beste pertsona batzuen bizitza eta planetaren zaintza hobetzen lagun dezan.**

Hainbat irtenbide daude kontsumismoaren aurrean:

- **Jakintzak edo denbora trukatzea:** azken urteetan ildo honetan sortu den jarduera bat **Denbora Bankuak** dira. Biztanleria-talde txikietan (herrietan edo hiri txikietan) nahiz hiri handietan sortu da ekimen hori, auzo edo barruti baten inguruan, normalean. Ezagutzak trukatzea da helburu nagusia, pertsona ezezagunei lagunduz zailen gertatzen zaizkien zereginetan, eta norberarentzat zailagoak diren beste zeregin batzuen orde trukatuz. Adibidez: bizilagun baten txakur bat paseatzen ateratzea, eta, trukean, auzoan bizi den emakume ingelesak ingelesezko eskolak ematea.

Irtenbide horri "elkarlaneko kontsumo" deritzo, eta kontzeptu sozialak, ekonomikoak eta ekologikoak hartzen ditu barnean, asetasun eta zorientasun pertsonala eskuratzeko laguntzeko helburuarekin. Lehenago ere esan izan dugu pertsona gisa gure burua gauzatzeko aukera dela gure denbora librean kontuan izan beharreko alderdietako bat, eta, beraz, kontsumo mota hori funtsezkoa izan daiteke errealitatea aldatzen hasteko.

- **Birziklatzea...** baina nola igaroko dugu gure denbora libreka birziklatzen? Ez dugu esan nahi gure denbora libreka zaborra edukiontzi egokietara botaz igaro behar dugunik (edozein jarduera amaitzen dugunean eta dena garbi utzi nahi dugunean egingo dugu hori), baizik eta apaintzeko elementu berriak, altzariak edo jolasak sor ditzakegula birziklatuz, eta, bien bitartean, gure familiarekin eta lagunekin une atsegin bat igaro dezakegula; eta jende berria ere ezagutu dezakegu, teknika berriak irakats diezazkigukeen eta ideiak gurekin parteka ditzakeen jendea.

Helburua ez da soilik birziklatzea, baizik eta urrezko 3 arauen (murriztu, birziklatu, berrerabili) kontzeptua gauzatea, eta beste bost eranstea: berriro ebaluatu, berriro kontzeptualizatu, berregituratu, birkokatu⁸ eta, batez ere, banatu. Arau horiek guztiak aplikatzen baditugu gure bizitzako alderdi guztietan eta baita gure denbora librean ere, aberastasunaren banaketa zuzena egiten lagunduko dugu.

8 Serge Latouchen La apuesta por el decrecimiento liburuaren laburpena (http://curriqui.es/archivos_pdf/Decrecimiento/Resumen_apuesta_decrecimiento_latouche.pdf): *Urrezko 8 arauen zirkulu bertutetsua: berriro ebaluatu - berriro kontzeptualizatu - berregituratu - banatu - birkokatu - murriztu - berrerabili - birziklatu. Berriro ebaluatzea hezkuntza doitzeta eta berriro kontzeptualizatzea da, bai eta berriro pentsatzea ere. Sisteman ikasitako kontzeptuek adimena blokeatzen digute, eta ezin ditugu ikusi beste aukera batzuk. Aberastasun eta pobrezia kontzeptuei dimentsio berri bat eman behar zaie, eta, batez ere, sistema kontsumistaren oinarria aldatu behar da: urritasuna/oparotasuna. Gabeziaren sorkuntza artifizialaren bidez [...eskaria handiagoa da eskaintza baino....], berezko oparotasuna urritasun bihurtzeko zientzia da ekonomia.*

- **Slow mugimendua** agian ez zenuen mugimendu horretaz hitz egiten entzungo, baina azken urteetan kontsumismoaren aurka indar gehien hartu duen joeretako bat da. Azkartasunaren gurtzari erantzuteko sortu zen, eta denboraz erritmo motelean eta esperientziak partekatuz gozatzeko apustua egiten du. Bizi-estilo horri jarraitu nahi badiogu, funtsezkoa da lanari, lo egiteari eta aisialdiari eskaintzen diegun denbora bereiztea; bizi-estilo honen adierazle eza-gunena *slow food* deritzona da, ostalaritzako kateetan nagusi den *fast food*aren aurrean. *Slow food* joerak jateko garaiaz gozatzeko planteamendua egiten du, gure bizitzako elementu nagusietako bat delako, eta zaporeez gozatea eta mahai baten inguruan esperientziak eta sentimenduak partekatzea proposatzen du. Lagunekin, senideekin, lankideekin eta gure buruarekin igarotzen dugun denborak kalitatezkoa izan behar du: *slow* mugimenduarekin, amaitu dira bisita azkarrak eta toki batetik azkar joan behar izatea beste batera berandu ez iristeko. **Oreka** da gako-hitza, baita ingurumenarekin izan behar dugun harremanean ere, gure planetan dauden desorekak orekatzea lortzeko asmoz.
- **Desazkundera**: esaldi honek definitzen du: **“gutxiagorekin hobeto bizitzea”**. Gure lehentasun pertsonalak nahiz gizarte-multzoarenak ordenatzeko apustua egiten du, hala, ongizate eta gizarte-berdintasun handiagoa lortzeko eta **desorekak murrizteko eta aberastasuna eta boterea banatzeko**. Norbanakoaren mailan, jokabide xumeak, eragin ekologikoez eta sozialez jabetzen direnak, abiarazten ditu desazkunderak. Herrialde pobreetan, desazkunderak herrialde horiek beren garapen-bide propioari jarraitzea esan nahi du, mendebaldeko garapen-erritmoak imitatzen ibili gabe, gizarte horiek ez baitute modu berean ulertzen ongizatea edo naturarekiko harmoniazko harremana.

Mundua gero eta globalizatuagoa dela eta herrialdeen elkarrekiko mendekotasuna kontuan hartuta, solidaritatea gizarte aldatzeko bultzatzailea izan daitekeela ikusten dugu, bizimodu etikoa eta bidegabekeriarik eta desorekarik gabea lortzeko bideari ekiteko.
- **Boluntariotza soziala eta solidarioa**: zalantzarik gabe, zoriona dakarkigu gure aisialdian egin dugun jarduera bat amaitzen dugunean guztion ongizateari ekarpena egin diogun sentipena izatea gure barnean; eta, horrez gain, hainbat balio garatzen ditugu, hala nola tolerantzia, errespetua eta parekoen arteko elkarbizitza. Frantzisko Aita Santuak dio beharrezkoa dela *kontsumismoa baztertuko duen eta oinarrizko balioetatik solidaritatea, gizakion arteko maitasuna eta naturarekiko errespetua izango dituen bizi-proiektu bat besarkatzea*. Gure denbora librean boluntariotzako jarduerak garatzeko erabiltzea irtenbide egokia izan daiteke gure gizartean nagusitzen ari den eta bakartzea sustatzen duen aisialdi kontsumistaren aurrean. Boluntariotza mota asko daude, eta adin eta pertsona guztien arabera egokitu daitezke. Gure ikastetxeetan, hezkuntza-elkarteek harreman estua dute kanpaina hau garatzen dugun erakundeekin, eta hainbat boluntariotza- eta lankidetzat mota garatzen ditugu, gazteek aisialdia modu atseginean igarotzeaz gain, mundu bidezkoagoa sortzen lagun dezagun guztion artean.
- **Mundu naturalarekin harremana**: ezin gara naturaz gozatzeko aukeraz ahaztu gure denbora librean, kontsumismoaren aurreko beste irtenbide bat baita. Gure erakundeetako kideek gai honi buruz hitz egin izan dute aurreko eskola-kanpainetan, zehazki, aztarna ekologikoari buruzkoan. Gure denbora librean naturarekiko harremana izateak ongizate- eta osasun-maila egokiak eskaintzen dizkigu gure haurtzarora garatzeko. Mendira irteera bat antolatzea edo gailur batera igotzeko erronka izan daitezke gure aisialdiaz gozatzeko bururatu dakizkigukeen planik onenetakoak, batez ere hiri handi batean bizi baldin bagara, hirietan zarata, zementua eta asfaltoa baitira nagusi eta bizi-erritmoak azkarragoak baitira.
- **Edertasunari behatzea eta hartaz gozatea**: kontsumo-gizartean, askotan, ahaztu egiten zaigu koadro bati, eraikin bati, ibai bati edo zeruari behatzeak zoriontasun handia sortzen digula, edo gauzen eta pertsonen edertasuna miresteak eta haiek balioesten ikasteak, eder izaten jarrai dezaten.

- **Barnekotasuna eta espiritualtasuna lantzea:** jarduera fisikoak, intelektualak edo espiritualak gorputza, burua eta arima garatzeko aukera ematen digute. Aisialdirako modu bikainak dira, eta ez dute kanpoko elementurik behar; gainera, zoriontasuna, oreka eta osotasunarekiko integrazioa eskaintzen dizkigute.

Horrelako ekintzekin betetzen badugu gure denbora libre, zalantzarik gabe, genituela ere ez genekien gaitasunak garatuko ditugu, harreman pertsonal berriak egingo ditugu eta gure aztarna ekologikoa murriztuko dugu, hala, gure planeta hobeto zaintzeko eta iraunkortasunari eusteko. Herri Mugimenduen Munduko III. Topaketan (Erroma, 2016ko azaroak 2tik 5era), Frantzisko Aita Santuak hauxe esan zuen: *Agintariei eskatzen diet apaltasun moral eta pertsonala praktikatzeaz ez nekatzeko, horrek, bestalde, oso zoriontsu egingo baititu.*

Etorkizunerako eskubidea

Ohartu zara gure aisialdi-moduek zenbat hondakin sortzen dituzten? Hondakin horiek gure planeta zikintzen ari dira, eta, horren ondorioz, bizigarritasuna galtzen ari da planeta, eta gaixotasunak eta lehortekak sortzen dira pobrezia-egoeran bizi diren inguruetan.

Gure aisialdian erabiltzen ditugun produktuen iraungitze-data oso laburra da, modek eta publizitateak berritzera edo aldatzera behartzen baikaituzte, modan egoteko. Joeren eta kontsumo-ereduen aldaketa horiek askoz ere hondakin gehiago sorrarazi dituzte, eta, askotan, herrialde pobreetako zabortegetan amaitzen dute bizi-zikloa hondakin horiek, ondorio larriak sortuz herrialde horietako biztanleengan: kutsadura handia, gaixotasun larriak izateko arriskua, laneko behin-behinekotasuna eta horiekin lotutako beste hainbat faktore.

Epe luzera begira, mundu osoko haurrek ezin izango dute gozatu orain dugun planetaren ezauzarri. Ezinezkoa da gure kontsumismoak, baita aisialdian egiten dugunak ere, gure bizitzetan maila globalean sortzen ari den ondorio zuzenak ezagutzea. Baina badira, gaur egungo kontsumo-ereduak aldatzen ez baditugu, errealitate horrek izango duen aurrerapenari buruzko hainbat azterketa zientifiko eta soziologiko, eta Nazio Batuen Erakundearen txostenak azpimarratu behar dira horien artean; txosten horietan oinarritzen da 2015etik 2030era arteko garapen-agenda berria: "Mundu-itun berri bat: garapen iraunkorraren bidez pobrezia eraztea eta ekonomiak aldatzea"⁹.

Ekintza txiki bidez, mundua alda dezakegu. Beraz, egokiena zoriontasun pertsonal handien eskaintzen digun horretatik hastea litzateke: gure denbora librearekin lotutako kontsumo-ereduak aldatu behar ditugu.

Gure etorkizuna –eta gure atzetik datozenena– gure esku dago: baditugu tresnak eta denbora; borondatea baino ez zaigu falta, gure aisialdiko kontsumismoari irtenbide bat emateko.

Zer egiten dugu gure erakundeetan?

2013. urtean, PROYDEK eta PROEGAK Astialdiko Marko Orokorra (Bilboko sektorea) garatu zuten, eta bi erakunde horiek aisialdiko eta denbora libreko jarduera batzuk eman zituzten eza-gutzera, hezkuntza-proposamen gisa erabiltzeko eta boluntarioei eskaintzeko.

PROYDEK eta PROEGAK salletar ikastetxeetan garatzen du bere jarduera nagusia, lurralde-ordezkaritzatan banatutako hainbat proiektu solidarioen bitartez; ikasturtean zehar proiektu horiek lantzen ditu, eta jarduera solidarioak eta denbora libreko jarduerak artikulatzen ditu. Jarduera horien guztien azken helburua proiektuak aurrera eramanez ahal izateko diru-laguntzak

9 http://www.un.org/es/sg/pdf/hlp_report_post2015_sg.pdf

jasotzea da, kontzientzia solidarioa sortzeko beharra alde batera utzi gabe: nola bizi gutxiago izanik, nolakoa den eguneroko bizitza hautatutako proiektuak garatzen diren tokietan, etab. Bidezko merkataritzak interes handia pizten du ikasleengan eta hezkuntza-elkarte osoarengan, baita familiengan ere, eta jarduera horretara zuzentzen dute euren denbora librearen zati bat. Azkenik, PROYDEk eta PROEGAk nazioarteko boluntariotza sustatzen du Amerikan, Asian eta Afrikan garatzen dituen hainbat proiekturen bidez, eta jokabide pertsonaletan eta kontsumo-ohituretan eta aisialdiko ohituretan aldaketa sustatzen du parte-hartzaileengan.

Ploclade Yanapay erakundeak boluntariotzako hainbat talde ditu, eta erakundearen hainbat jardueratan inplikatzeko dira boluntarioak: garapenerako hezkuntza, sentsibilizazioa, argitalpenen lanketa, etab. Modu berean, boluntario gazteen taldeekin lan egiten du bidezko merkataritza sustatzeko, ikastetxeetan salmenta- eta sentsibilizazio-puntuak jarritz. Gainera, nazioarteko boluntariotza sustatzen du, beste errealitate batzuen ezagutza bultzatuz.

PROIDEk nazioarteko boluntarioen formaziora zuzendutako berriazko bi modulu ditu, eta planetarako, gizateria osorako eta norbanako bakoitzarentzat materialtasuna alde batera uztea eta gure bizitzaren zentzua kontsumo-ondasunetatik ahalik eta urrutien aurkitzea zeinen beharrezkoa den azpimarratzen da modulu horietan. Modulu horietan norbanakoen gogoeta planteatzen da, pertsona bakoitzak bere bizitzan txerta ditzakeen gauza txalogarriak eta berehalakoak aipatzea lortzeko.

Ildo beretik, PROCLADE Fundazioak boluntariotza sustatzen du, aisialdiaz eta denbora libreaz konpromisotik gozatzeko. Horrez gain, boluntarioei zuzendutako formazioaren zati bat, bai ordezkartzetan bai klaretar ikastetxeetan, gure baliabideez (denbora, dirua, objektuak) egiten dugun erabileran oinarritzen da, eta erabilera horrek planetari eta herrialde pobreei nola eragiten dien aztertzen du. Bestalde, proiektuak garatzen dituen Hegoaldeko herrialdeetan gazteei aisialdiko aukerak eskaintzen dizkie baita ere; esate baterako, Ciudad Peronian (Guatemala) hezkuntzako eremu komunitario bat eraiki da, gazteek jarduera ludikoak gara ditzaten eta baliok lan ditzaten, hala, indarkeria alde batera uzteko aukera izan dezaten.

SEDen helburu nagusietako bat boluntarioak sustatzea eta formatzea da, bizi-estilo gisa ulertuta, eta hainbat mailatan garatzen da formazio hori (tokian-tokian edo egoitzan, landa-lanaren bidez eta iraupen luzeko formazioaren bidez). Gainera, SEDen jabetzen dira aisialdiko eta denbora libreko jarduera sano eta positiboek duten garrantziaz haurtzaro eta gaztetasun osasungarria izateko, eta, horregatik, garapen-lankidetzako hainbat proiektu garatzen dituzte ildo honen barnean: ludotekak eta jostailuak bidaltzen dituzte Afrikako eta Erdialdeko Amerikako ikastetxeetara; bestalde, Hezkuntzarako Eskubidearen aldeko Golak proiektua garatzen dute Korhogón (Boli Kosta), kirolaren bidez hezkuntzarako eskubidea sustatzeko. El Salvadorren eta Guatemalan indarkeriari aurrea hartzeko garatzen dituzten proiektuak ere azpimarratu behar dira, bi herrialde horietan gazteen talde biolento ugari baitaude, mara izenez ezagutzen direnak.

Baliabideak

- #ConsumoJusto: Documento Base del Departamento de Estudios e Incidencia Social de PROCLADE-PROYDE-SED. <http://comerciojusto.org/publicacion/informe-consumo-justo/>
- Consumópolis: <http://www.consumopolis.es/>
- Basurama: hondakinekin egindako proiektu artistikoak <http://basurama.org/>
- Antoni Bolinches: "Recetas para mejorar el mundo. Propuestas de un humanista para el cambio social". Debolsillo, 2009.
- Ana García Novoa: "Vivir mejor con menos. Trucos para simplificar tu vida y aumentar tu bienestar". Océano Ambar, 2010.

- “Actúa con Cuidados” kanpaina (Intered): <http://redciudadaniaglobal.org/actua-con-cuidados/#.UW1FQ0pHWIs>